



Lehiaren  
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca  
de la Competencia

# *Errukitasun programa*

*Kartelen aurkako borroka*

[competencia.euskadi.eus](http://competencia.euskadi.eus)



# ***Errukitasun programa***

*Kartelen aurkako borroka*

## Zer da errukitasun-programa?

Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 65. eta 66. artikulua eta Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamenduaren (otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuak onetsia) 46.etik 52.erainoko artikulua.

Kartel bateko partaideak diren enpresek eta zuzendaritzakoek etekina aterako diote isun-ordainketa salbuesteari edo isunaren zenbatekoa murrizteari, LEA/AVC-ri lankidetzan eskaintzen badiote.

## Zer da kartel bat?

**Kartel bat bi lehiatzaile edo gehiagoren arteko edozein akordio edo hitzartutako jardunbide da, horren helburua partaideen jardura merkatuan koordinatzea edo lehiaren parametroetan eragina izatea bada, ondoko jokabideen bidez, besteak beste:**

1. Erosketa- edo salmenta-prezioak edo beste merkataritza-baldintza batzuk finkatzea edo koordinatzea.
2. Ekoizpen- edo salmenta-kuotak ezartzea.
3. Merkatuak eta bezeroak banatzea, baita lizitazioetan kolusioa egitea ere.
4. Inportazioak edo esportazioak murriztea.
5. Lehiaren aurkako neurriak hartzea beste lehiatzaile batzuen aurka.

## Zertan datza errukitasun-programa?

Errukitasun-eskabidea aurkezten duen **lehenengo inplikaturia**, LEA/AVC-k berririk ez duen kartel bati buruz frogazko elementuak aurkezten baditu, bai zehapen-espeditentzia ireki ahal izateko, bai ikerketetan jardun ahal izateko (baita ikuskapen bat egin ahal izateko ere), **ISUNA ORDAINTZETIK SALBUETSITA** geratuko da.

LEA/AVC-k ezagutzen duen kartel bati buruz frogazko elementuak aurkezten duten enpresa inplikatuak **ISUNAREN ZENBATEKOAREN MURRIZKETA** lortzeko aukera izango dute, %50era arte.

**OHARRA:** Beste enpresa batzuk kartelean parte hartzea behartzeko neurriak hartu dituen enpresak, edo karteleko partaidea izaten jarraitzen dutenak, ezin izango dira salbuetsita geratu isuna ordaintzetik, baina isunaren zenbatekoa murriztea eskatu ahal izango dute.

Gogoratu kartel batean parte hartzea **ARAU-HAUSTE OSO LARRIA** dela.

Isuna jartzen den ekitaldiaren aurrekoan enpresak guztira izan zuen negozio-bolumenaren %10era arteko isuna jar daiteke.

Legezko ordezkari edo zuzendaritzako bakoitzari 60.000 eurora arteko isuna ere jartzeko aukera badago.

Lehiaren zuzenbidearen arau-hauste batengatik jarritako zehapenak denbora luzean administrazio publikoekin kontratatzeko debekua ekar dezake.

## Noiz aurkeztu behar dut eskabidea?

Data eta ordua erabakigarriak dira. Errukitasunaren lehenengo eskatzailea bakarrik gera daiteke salbuetsita isuna ordaintzetik. Hurrengoek isunaren zenbatekoaren murrizketa lortzeko aukera izango dute, %50era arte, baldin eta balio gehigarri esanguratsua ematen duten frogazko elementuak aurkezten badituzte.

Murrizketa %30era artekoa izan daiteke bigarrenarentzat eta %20ra artekoa ondorengoentzat.

# Nola aurkeztuko dut eskabidea?

Eskabidea aurkez daiteke ahozko aitorten bat eginez LEA/AVC-ko egoitzan, lkerketa Zuzendaritzarekin hitzordua adostuta, edo idazki baten bidez, LEA/AVC-ko lkerketa Zuzendaritzari zuzendua.

## Zein informazio eman behar dut?

### 1. Errukitasunaren eskatzailearen identifikazioa:

- Izena edo sozietatearen izena eta eskatzailearen helbidea.
- Harremanetarako pertsonaren izena, telefonoa eta posta elektronikoa.

### 2. Kartelaren beste partaideei buruzko informazioa:

- Izena edo sozietatearen izena, enpresen helbidea.
- Kartelean parte hartzen duten edo parte hartu duten zuzendaritzako guztien izenak eta datu profesionalak.

### 3. Kartelaren deskribapen zehaztua:

- Kartelaren helburuak, jarduerak eta funtzionamendua.
- Kartelak ukitutako produktuak, zerbitzuak eta lurraldea.
- Kartelaren iraupena.
- Kartelaren partaideekin egindako bileren datak, tokiak, edukiak eta bertaratuak.

### 4. Kartela badagoela egiaztatzeko frogak:

- Akordioei buruzko dokumentuak.
- Bidaien dokumentuak.
- Merkataritzako dokumentuak.
- Zirkularrak.
- Posta elektronikoak.
- WhatsApp mezuak edo bestelako bat-bateko mezularitzakoak edo sare sozialekoak.

- Negoziaketen edo bileren aktak.
- Telefono-deien erregistroak.
- Bileren grabaketak eta horien transkribapenak.
- Karteleko partaideen arteko harremanen grabaketak.
- Salneurrien eratzeari eta bilakaerari buruzko estatistikak, eskaintzaren edo salmentaren baldintzei buruzkoak, etab.
- Bestelako frogak, zuzenbidean baliozkoak badira.

## **Zertan datza lankidetzan eskaintzeko betebeharra?**

Kartela indarrean badago, errukitasunaren eskatzaileak parte hartzeari utzi behar dio, salbu eta LEA/AVC-k beharrezkotzat jotzen badu parte hartzen jarraitzea, geroago egingo den ikuskapena eraginkorragoa izan dadin.

Eskatzaileak erabateko lankidetzan jarraitu eta arretatsuaren betebeharra du LEA/AVC-rekin, isuna ordaintzetik salbuetsita geratzeko edo isunaren zenbatekoaren murrizketa lortzeko.

Hortaz:

- Kartelarekin loturiko informazioa eta frogazko elementu garrantzitsu guztiak atzerapenik gabe eman behar dizkio LEA/AVC-ri.
- Gertakariak argitzen lagun dezaketen betekizun guztiei atzerapenik gabe erantzun behar dizkie.
- Enpresa bat bada, egungo langile eta zuzendaritzakoekin eta, hala denean, aurreko zuzendaritzakoekin, elkarrizketak egiten erraztu behar dizkio LEA/AVC-ri.
- Ezin du kartelari buruzko informaziorik edo frogazko elementu garrantzitsurik hondatu, faltsutu edo ezkutatu.
- Ezin du eskabidea edo horren edukia zabaldu, gertakariak zehazteko agiria jakinarazi edo, hala denean, LEA/AVC-rekin adosten den ueña baino lehen.

## Isilpekotasanaren bermea

Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamenduaren 51. artikulua xedatutakoari jarraiki, LEA/AVC-k isilpekotzat hartuko du isun-ordainketa salbuesteko edo isunaren zenbatekoa murrizteko eskabidea aurkeztea, eta aparteko atal berezia sortuko du isilpekoak direla uste duen eskabidearen datu eta agiri guztiekin, edonola ere, eskatzailearen nortasuna barne hartuz.

Hala ere, zehapen-espeditatea irekiko balitz, gertakariak zehazteko agiriari erantzuteko beharrezkoak izango liratekeen dokumentuak eskuratu ahalko lituzkete interesdunek. Hala ere, ezin izango dituzte errukitasunaren eskatzailearen aitopenen kopiak eskuratu. Ikusi ahal izango dituzte aitopena, baita oharrak hartu ere, baina, inola ere ez, erreproduzitu.

Jurisdikzio-organo batek eskatzen badio LEA/AVC-ri errukitasunaren eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa, LEA/AVC-ren jarduera berrikustearren errukitasun-eskabidea aurkeztu den administrazio-prozedurari amaiera ematen dion Ebazpena eman baino lehen, isilpekotasan-izaerarekin emango zaio dokumentazio hori. Halaber, esango zaio dokumentazioa ezin zaiela jakinarazi balizko interesdun edo hirugarrenei, Lehiaren Defentsari buruzko Legeak berme berezia ematen baitie errukitasun-eskabideei eta ondorio larriak ekarriko bailituzke errukitasun-eskabideak edo euren edukia zabaltzeak. Izan ere, horiek zabaltzeak murriztuko lituzke kartelaren partaideak diren beste lehiatzaileek izan dezaketen pizgarriak errukitasun-eskabideak aurkezteko eta LEA/AVC-k izapidetutako ikerketa kaltetuko litzateke.

Errukitasun-eskabideak aurkeztu diren prozeduretan zehatutako arau-hausteengatik kalte-galerak eskatzeko akzioak aurkeztuko balira, LEA/AVC-k ez lituzke errukitasunaren eskatzailearen

aitorpenen kopiak emango. Izan ere, horrek kalte egingo lioke errukitasun-programaren eraginkortasunari eta kartelen aurkako borroka ahulduko luke.

**(Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko azaroaren 26ko 2014/104/EB Zuzentaraua, Estatuetakozuzenbidean kalte-galerak eskatzeko akzioak xedatzen dituzten arauetiburuzkoa, Europar Batasuneko eta Estatu kideetako lehiaren zuzenbidea hausteagatik)**



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

Ercilla, 4 – 2  
48009 BILBO  
Tel: 944 032 813  
Fax: 944 032 801  
infocompetencia@avdc.eus  
**competencia.euskadi.eus**